



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2009-01-30

VII.URTEA 1.616.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Alurr taldeko dantzariak Leidor antzokian, gaurko emanaldia prestatzen. REBEKA CALVO

## ETXEAN «BIGARREN ESTREINALDIA» EGINGO DU GAUR ALURREK

**IBARRA** Dantza Taldeak 'Sua' ikuskizuna aurkeztuko du kiroledegian, 22:00etan, Uzturpe ikastolak antolatutako Kultur Astearen baitan <

## Kalean Bonberenea Txarangaren bigarren diskoa

**TOLOSA** Kantu ezagunen moldaketekin argitaratu dute 'Rocka eta urrezko komona' <

## Binakako Txapelketaren jardunaldi berria Bengoetxea eta Barriolarentzat

**LEITZA** Lehenak etzi jokatuko du Eibarren; atzelariak, berriz, bihar, Idiazabalen <

## «Herri honetan ez dira eskubideak bermatzen»

**LEABURU-TXARAMA** Ezker abertzaleak Udalaren jarrera salatuta, «haserre» daudela esanez <



Agerraldia egin zuten testua aurkezteko. I.TERRADILLOS

## Emakumeenganako erasoak areagotu direla salatu dute

**TOLOSA** Tolosako Gazte Independentistek, Sanblaspeko Gazte Asanbladak, Jatorkinek eta Bilgune Feministak testu bateratua osatu dute <



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan  
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



**Z Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Lagundu dutenei eskerrak**

Hirukide ikastetxeak eskertu nahi die aurtengo Eguberri kanpainan lagundu duten guztiei. Bai Abegitik bai Caritasetik esker ona jaso dugu eramandako produktuentzat eta geuk halaxe egin nahi dugu eskolako kide guztiak eta Eroskiko sarreran gure ikasleei hainbat produktu utzi zizkietenean.

**Hirukide ikastetxea****Errepideen egoeraz bi hitz**

Autoa hartzen duzuen tolosarrak: anima zaitezte herrian dauden txapuzak salatzeraz. Hasteko honako bi hauek: Berazubitik igo eta Iurreamendi parean dauden KRATERAK meteoritoren batek eraginak al dira, hainbeste denboran konpondu gabe edukitzea? Aranzadi ari al da zerbitu ikertzen?

Eta bi: Arriarandik Tolosara sartzen bazara, abiadura jaitsei arazteko bigarren «tontorra» nola egin al zuten? Zein artista aritu zen, hain gauza ximplea hain gaizki egiteko?

**Luismai.****Haizetearen ondorioetako bat**

Aste honetan izan den haizeteak Languarre parkean ere eragina izan du. Bertako pinu zahar bat lurrrera bota zuen. Urte asko dituzte pinu hauek eta metro batzuk ere baditu. Eskerrak, zuhaitza biren tartera erori zen, eta monolito bat «bakarrik» hautsi zuen, txintzarri batzuen, argazkietan ikusten den bezela.

**Patxi Renobales (Alegia).****B Blogteka****2009/10 ikasturterako matrikula deialdia**

Datorren otsailaren 2an 09/10 ikasturterako matrikula kanpaina zabalduko da eta otsailaren 13 arte luzatuko da. Informazio gehiago nahi izanez gero bisitatu gure web orria edo deitu 943651063 telefonora.

**Samaniego ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/samaniego>

**Badator berriro Lilatoia**

Emakumeen Nazioarteko Eguna aprobetxatuz, Lilatoia emakumeen lasterketa egiten da urtero Donostian, martxoaren hasieran.

Korrikalariek Alderdi Ederren hasi eta toki berean amaitu behar dute bost kilometroko ibilbide laura.

Lasterketan banaka parte har daiteke, baita talde baten izenean ere. Azken urteetan Ikastolako ikasle, ikasle ohi, ama, izeba eta irakasle batzuk animatu izan gara eta

oso ongi pasa ere bai. Aurtengorako ere animatuta gaude, baina talde handiagoa izatea nahi genuke.

Zerbitu gehiago jakin nahibaduz edo korrika egitera animatu nahi baduz, idazkaritzan galde dezakezu (943-697122 / [tolosa@ikastola.net](mailto:tolosa@ikastola.net)) eta Arrate edo Miren irakasleekin harremanetan jarriko zaituzte.

Anima zaitez, 5 km ez da gehiegi alde aurretik pixka bat entrenatuz gero eta ia bi hilabete ditugu oraindik

**Laskorain ikastola**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/laskorain>

**Sakeleko hiztegia**

Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren ekimenez, euskara-gaztelania / gaztelania-euskara hiztegia jaso eta erabili ahal izango da eskuko telefonoan. Edonork nahi duenean jaitsei ahal izango du hiztegia SMS Premium sistemaren bitartez. Zerbitzu hau ez da Donostiara mugatzen, Donostia-

tik kanpo ere jaitsei eta erabili ahal izango baita.

Erabilera oso erraza da. Erabiltzaileak sms bidez *Hiztegia* hitza idatzi eta 5464 zenbakira bidali behar duela aplikazioa jaitseko. Erabiltzaileak 0,15 + BEZ ordaindu behar du hiztegia deskargatzeko. Ordainketa behin bakarrik egingo da, behin hiztegia jaitse erabiltzaileak nahi adina kontsulta egin ahal izango du doan.

Eleka Ingeniaritza Linguistikoa eta Bluexare enpresek garatu dute hiztegia eskuko telefonoetan integrazteko sistema. Hiztegi hau Elhuyar hiztegiaren oinarrituta dago, euskaraz edo gaztelaniaz nabigatzeko aukera eskaintzen du eta 20.000 sarrera ditu.

Aplikazioak 334 kb pisatzen ditu eta telefono mota gehientsuen erabili ahal izango da. Bestalde, wap bidez ere jaitsei daiteke [www.euskaraz.net/wap](http://www.euskaraz.net/wap) helbide-tik, eta baita ordenagailu bidez ere [www.euskaraz.net/wap/Donostia\\_hiztegia.jar](http://www.euskaraz.net/wap/Donostia_hiztegia.jar) helbidean sartuta eta bertatik USB bidez eskuko telefonora deskargatu.

Euskararen Udal Patronatuaren helburu estrategikoen artean dago euskarazko produktu informatikoen eta eduki digitalen erabilera areagotzea. Zentzu horretan, eskuko telefono bidezko hiztegi hau tresna interesgarria da oso euskarateknologia berriaren eremuan ere presentzia eduki dezan, eta horrez gain, zerbitzu praktikoa eta eraginkorra da.

**Hirukide ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

**K Kirol jarduera****Bihar, larunbata****Futbola**

■ Berazubi futbol zelaian, 16:30ean Gorengean Mailan: Tolosa CF- Aloña Mendi.

■ Usabalgo futbol zelaian, kadeteen euskal liga, 11:30ean, Tolosa CF- Peña Athletik Santurtzi.

■ Usabalgo futbol zelaian, lurraldekoen bigarren mailan, 15:30ean, Amaro-Union Txiki.

■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezkoak, 17:30ean, Tolosa CF- Hernani.

**Zesta punta**

■ Beotibar pilotalekuan, 18:30ean Zesta puntako partidak.

**Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantuan, kadetena, 09:00etan, Tolosa- Aloña Mendi.

■ Usabalgo beheko kantuan, infantilak, 12:00etan, Tolosa- Amena-bar.

**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantuan, infantilak, 10:30etik aurrera: neskak, TAKE A- Eskibel eta TAKE B- Aloña Mendi; mutilen, TAKE C- Internacional Mons.

■ Usabalgo goiko kantuan, infantilak, 12:00etan, mutilen TAKE A- Zubiri Manteo; ondoren, kadeten, neska: TAKE A- Añorga eta TAKE A- Internacional.

■ Usabalgo goiko kantuan, jubenilak 16:00etan: TAKE- Cafe Aitona B.

**Areto futbola**

■ Usabalgo beheko kantuan, jubenilak 10:30ean, Laskorain- Donostia.

■ Usabalgo beheko kantuan, 09:30ean infantilak: Eskola Kirola.

**Etzi, igandea****Futbola**

■ Usabalgo futbol zelaian, alebinen mailan, 09:30ean, Tolosa CF- Sportin Herrera.

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil txikien mailan, 11:30ean, Tolosa CF- Beasain.

**Zesta punta**

■ Beotibar pilotalekuan, 09:00etan Zesta puntako partidak.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)  
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)  
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala  
Tolosa (Bellatokia)

## Laburrak

### Hautesle-mahai osatzeko zozketa astelehenean

**TOLOSA** » Datorren astelehenean, otsailak 8, Udaltzaren Aparteko Osoko Bilkura izango da. 08:00etan elkartuko dira Udaltzariak eta martxoaren 1eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako hautesle-mahaiak osatzeko zozketa egingo dute, baita zutabe eta panelen banaketa ere.

### Ura ezin dela edan ohararazten du Udalak

**IBARRA** » Udalak herriko biztanle guztiei jakinarazten die gaur eguneko txorrotako ura ez dela edangarria, eta ur korrontea erabili nahi izanez gero, behar diren segurtasun-arauak hartzeko gomendatzen du, erabili aurretik ura irakitea esaterako. Nolanahi ere, arazoa laster konponduko dela uste du Udalak.

### Bake Eguna ospatuko du Hirukidek gaur Trianguloan

**TOLOSA** » Gaur Bake Eguna ospatzen da, hori dela eta, Hirukidek ekitaldi bat burutuko du Trianguloan, 12:00etan. Ikasle zein irakasleak lau ibilbide ezberdinetatik iritsiko dira plazara eta bertan Bakea hitza letra erraldoiz osatuko dute. Letra horietan bakearen inguruko leloak eta esaldiak itsatsita egongo dira. Honez gain, idatzi bat irakurriko dute eta abesti bat entzun. Hala Hirukideko senideak eta tolosar guztiak gonbidatzen dituzte ekitaldira.

### Laskorain ikastolaren inguruko informazio bilerak

**TOLOSA** » Datorren ikasturteari begira, euren seme-alabak Laskorain ikastolan matriculatu nahi dituztenentzat aurkezpen ekitaldiak egin dituzte datorren astean. Haur hezkuntzakoena ostegunean, 19:00etan izango da Usabalen, DBHkoena berri, asteazkenean 17:30ean, toki berean.

# Bonberenearekin, rocka txarangaren bozgorailuetatik entzuteko aukera

**Tolosa** » Kantu ezagunen moldaketekin, 'Rocka ta urrezko komona' izeneko bigarren diskoa kaleratu du Bonberenea Txarangak.

#### ERREDAKZIOA

*Rocka ta urrezko komona* izenburupean, rock abestien bertsio bilduma argitaratu du Bonberenea Txarangak. Diskoa, partitura eta bideoklipaz osatutako lana da eta 40 musikari inguru bildu dira hau egiteko.

«Memoria musikal kolektiboa» kokatzen diren abestiak aukeratu dituzte disko honetarako. Hala, hauei berrinterpretazio bat eman die, eta txaranga munduan berri den sonoritate batekin esperimentatu dute. Bereziki, 80. hamarkadan Euskal Herrian eta baita beste hainbat lekutan piztutako mugimendu sozialari egin diote erreferentzia, garai hartako esentzia eta mezuak isladatu nahian. Estilo ezberdinak lotu dituzte rock-aren ildotik, eta generazio eta garai ezberdinen arteko zubia eraikitzen saiatu dira.

Ondorengo abestien moldaketak entzun daitezke *Rocka ta urrezko komona* diskoan: Ramonenesen *Raymons*; Piperrak *Pau-piperrak*; Rip-en *Con(de)nada*; La Polla Recordsen *Kkmen*; The venturesen *Hawai Five O*; Skalariak *Jaja*; Mano Negraren *Latza bizitza*; The clashen *Safe European Homer*; Su tagar-en *Jota que?*; DJ Shantel emir kustrica goran bregovic-en *Mambayaga* eta Bonberenea Txarangaren *Gordeketan*.

#### Bost urtetik gora instrumentuak astintzen

Bonberenea Txaranga 2003ko abenduan sortu zen Bonbereneako urteurrena alaitzeko asmoz. Hasiera batean urteurreneko ekintza bat bazen ere, gogo biziz



Kaleetan ez ezik, etxean entzuteko aukera ere izango da orain Bonberenea Txarangaren musika. NAIARA URBIZU

ari dira txarangako kideak aurrera jarraitu nahian eta beste zenbait ekitalditan parte hartzeko asmoz. 2005.urtean Bonberenea Txarangaren diskoa aurkeztu zen.

Jadanik jaialdi eta festa mordo batetan izan dira doinu alaiak jende animatzeko asmoz eta horrela jarraitzea espero dute. Aipatu bezala, duela lau urte kaleratu zuten Bonberenea Txarangak bere lehendabiziko diskoa. Bonberenea Ekintzak-ek ekoizita eta Karlos Osinaga Txap-ek grabatua izan zen lehendabiziko diskoa ere. Lan alai eta freskoa zen, txarangaren gaztetasunaren seinale, eta esperientzia hark proiektu sakonagoetan murgiltzeko gogoia piztu zien musikariei.

Baina Bonberenea txaranga, diskoan ez ezik kalean entzuteko hainbat eta hainbat parada dauka. Duela bost urtetik hona, Inauteri, San Juan jaia, auzoetakoak, Ko-

rrika, Gaztetxeak... alaituz aritu dira, eta lan horretan jarraitzeko asmoa dute.

#### Liburua ere bidean da

Bonberenea Txarangaren kantua jotzeko aukera ere izango du laster jendeak. Izan ere, diskoaren ostean, partitura liburu bat prestatu dute Bonberenea Ekintzak-ek eskutik.

Bonberenea Txaranga lagun arteko proiektu bat da eta diskaren aurkezpenak sortutako ikusmirak, herriari kantua jotzeko aukera luzatzera bultzatu zituen.

Diskoko kantua, txarangako kideek konposatutako zein beste kantuen moldaketak dira eta kantuen partitura liburua, instrumentu bakoitzarentzat prestatutako partituras, kantuen hitzak eta Eneko Aranburuk idatzitako txarangaren biografia aurkitu ahal izango dira.



Diskoaren azala. HITZA

#### » DATUAK

- **Izenburua.** *Rocka ta urrezko komona*.
- **Taldea.** Bonberenea Txaranga.
- **Ekintza.** Bonberenea ekintzak.
- **Grabaketa.** Tolosako Bonberenea grabatu du, Karlos Osinaga Txap-en gidaritzapean.
- **Moldaketa eta konposaketak.** Xabier Zelaia, Jon Altuna eta Jon Arruabarrena.

## Usabalen jarraipen batzordea

**Tolosa** » Kiroldegiaren eguneroko martxa aztertze talde bat osatuko da aurtien ere; zabalik dago izen-ematea.

#### ERREDAKZIOA

Usabal kiroldegiaren funtzionamenduaren inguruko jarraipena egiteko asmoz, talde berezi bat osatu zen az. Aurtien ere, egitasmoari jarraipena emateko asmoz eta hau aztertze talde berri bat

eratzeko proposatu du Udaleko kirol batzordeak.

Tolosako Udalak 2007ko azaroaren 12an eginiko Kirol Batzordean, Usabal kiroldegiaren inguruan abonatuen lan taldea sortzea erabaki zuten. Honen helburua zen, eguneroko martxa aztertzea, erabilpen kexak kontrolatzea eta bide batez, hobekuntzak proposatzea. 2008an lan talde hori osatu eta funtzionatu zuen, eta aurtien ere jarraitzeko asmoz, taldekideen aldaketa egin nahi da.

Taldea ondorengoek osatuko

dute: abonatuak (bi gizon, bi emakume), klubetako ordezkari batek, Usabal kiroldegiako gerenteak eta udal kirol teknikariak. Hauek hila-bete behin elkartuko dira, eta erabiltzaileen ikuspegitik Usabal kiroldegia aztertzea izango dute xedea.

Interesatuak kirol batzordea, 943697455 telefono zenbakira deitu dezakete edo kiroldegiako sarrikeran jakinarazi. Interesatu guztien artean zozketa egingo da eta besteekin zerrrenda irekiko da hurrengo baterako.

## Saio batzuetan, hiriaren historia aztertuko da

**Tolosa** » Aulas Kutxak antolatuta ostegunetik aurrera izango dira saioak; oraindik ere izena emateko aukera dago.

#### ERREDAKZIOA

Aulas Kutxaren egitarauaren baitan, Tolosaren historiaren inguruko ziklo bat egingo da datozen asteetan. Saioak otsailaren 5ean hasi-

ko dira eta Tolosako Kultur Etxean izango dira. Jardunaldiak 18:00etatik 19:00etara bitartean gauzatuko dira.

Saio hauetan, hiriaren historiaren inguruko hainbat pasarte, erakina, ohitura, pertsonaia ezagun eta gertaera historikoak aztertuko dira. Besteak beste, jatorria, foruak eta herriaren antolakuntza. Izena emateko [www.kutxasocial.com](http://www.kutxasocial.com) webgunean egin daiteke, baita 902 54 00 40ra deituta.

# Emakumeen aurkako erasoak areagotuz doazela salatu dute

## Genero indarkeria »

Gazteen artean errepikatzen direla erasoak azaldu dute, eta gizarteak erantzun egin behar duela.

### INIGO TERRADILLOS

Emakumearen inguruan «eskualdean ematen ari diren erasoak areagotuz ari direla ikusita», alarma gorria piztu nahi izan dute hainbat eragilek, Tolosako Gazte Independentistek, Sanblaspeko Gazte Asanbladak, Jatorkin etorkinentaldeko elkarteak eta Bilgune Feministak, hain zuzen ere.

Herenegun eragile horietako ordezkariak egin zuten agerraldian, kezkaz begiratzen diotela «errealitate gordin honi» esan zuten; «batik bat, kezka sortzen digute gazteen artean ematen ari diren eraso sexistek». Euren iritziz, emakumeen eta gizonen parekidetasunaren alde aurrerapauso handiak eman direla esaten den arren, eta «gizarte aurrerakoi batean bizi garela eta berdintasunera iristear gaudela edo berdintasunean bizi garela dioten arren errealitate bestelakoa da». Izan ere, «ia egunero jasotzen ditugu indarkeria sexistaren albisteak, eta gure eskualdean ere emakume bat baino gehiagok pairatu du horrelakorik».



Gazte Independentistak, Sanblaspeko Gazte Asanblada, Bilgune Feminista eta Jatorkin elkarteak, herenegun. I.T.

## «Sustraiak egungo sistema patriarkalean»

Egoera hauek jende gaztearen artean errepikatuz doazela argi utzi nahi dute: «16, 17, 18, 20 edota 25 urteko mutilek neskak erasotzen jarraitzen dute egun gure herrian, XXI. mende honetan». Hain zuzen ere, «horren guztiaren susturriak egungo sistema patriarkalean» topatuko ditugula diote. «Haurrak garenetik esaten zaigu zein jostailurekin jolastu behar dugun neska ala mutila izan; amasensibileak eta aita ausart eta babesleak izan behar ditugula errepikatzen

zaigu behin eta berrero; beraz, sexuen arabera balore eta rollen bereizketa jaino garenetik bizi dugu».

## «Guztion artean aldatu behar dugu egungo gizartea»

Hala, eragile horien ustez, «ez dago askatasun eta aniztasun errealtateko lekurik egungo gizartean, bestelakorik esaten bazugu ere». Parekidetasun eza horren erakusle larriena emakumeenganako indarkeria dela diote, izan ere, «emakume izate hutsagatik erasotutak garagaur egun oraindik

Testu bateratua adostu duten eragile hauen arabera, «botere harremanetan oinarritzen den jendarte hau herri honetan bizi garen guztion artean aldatu behar dugu, bakoitzak bere lekutik, baina denon egitekoa da, jatorria edonolako izanda ere».

Hala, eragile hauek emakumeen aurkako erasoan aurrean erantzutea eskatzen diete herritarrei, «guztion esku baitago jendarte juxtuago bat eraikitzea, non gizon eta emakumeok eskubide eta aukera berdintasunean bizi ahaliko garen».

# Palestinaren aldeko ekitaldiak antolatu dituzte gaurko eta biharko

## Elkartasuna »

Hitzaldia, kontzertuak, manifestazioa, bazkaria eta erakusketa egingo dituzte.

### ERREDAKZIOA

Palestinaren herriari elkartasuna adierazteko asmoz, Sanblaspeko Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu ditu gaur eta bihar, *Gora herrien borroka! Gora Palestina!* izenburupean. Hitzaldia, bazkaria eta zuzeneko musika emanaldiak izango dira, baina nabarmentzekoa, bihar eguerdirako deitu duten manifestazioa.

### » EGITARAUA

#### Urtarrilak 30, gaur

■ **19:00.** Hitzaldia izango da Otsabi elkartean.

#### Urtarrilak 31, bihar

■ **12:30.** Manifestazioa Triangulotik abiatuta.

■ **11:30-14:00.** Erakusketa izango da ikusgai, Kultur Etxean.

■ **14:00.** Bazkaria Oargi elkartean, palestinari jakitukoekin.

■ **17:00.** Kalejira Alde Zaharretik abiatuta, Otsabi elkarteraino.

■ **18:30.** Kantaflor eta Gargantas Desgarradas taldeen emanaldiak.

# Sahararrei laguntzeko janari bilketa azken txanpara heldu da

**Elkartasuna »** Bihar haima bat jarriko dute Trianguloa, eta bertan utzi ahaloko dira jakiak; cus-cus eta tea ere dastatu ahaloko dira.

### ERREDAKZIOA

Abenduaren erdialdean ekin zioten eskualdean Sahararen aldeko janari bilketari. Urtero martxan jartzen duten Euskal Karabana, *Piztu Itzaropena* lelopean burutzen da, eta Tolosaldea Sahararekin Sahara bizi! elkarteak kudeatzen du eskualdean.

Hala, aurtengo kanpaina azken txanpara heldu da, hilabetearen azken egunarekin batera amaitekobaita. Hori dela eta, pasa den astean egin bezala, bihar goizean Tringulo plazan haima bat jarriko dute Sahararen aldeko elkarteak kideek. Bertan, saharar musika entzuteko aukera izango da, eta cus-

cus eta tea dastatu ahaloko dira, baita ere. Horretaz gain, haiman bertan janari bilketa ere egingo dute.

Tolosaldea Sahararekin elkartetik azaldu dutenez, 4.000 kilo inguru bilduak dituzte dagoeneko. Aurtengo erroka, iazkoa bezala, 10.000 kilora heltzea zen, baina nahiko zail ikusten dute hori gainditzea, «krisiak ere elkartasun kanpaina eragina izan du nonbait». Horregatik, herritar guztiak animatu nahi dituzte, bihar Triangulotik pasa, eta bakoitzak ahal duena uztera.

## Beharrezko laguntza aurrera egin ahal izateko

Arroza, lekaleak, pasta, hegaluztea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak dira aurtun utzi beharrekoak, udaletxeetan eta Kultur Etxeetan. Geroz eta laguntza gutxiago iristen zaie sahararrei, horregatik inoiz baino beharrezkoa dute guztion laguntza.

# Gipuzkoako Ganberan hartu du parte Hirukide ikastetxeak

**Hezkuntza »** Adimen Emozionalaren inguruan ikastetxeak izan duen «esperientzia onuragarria» kontatu zuten.

### ERREDAKZIOA

Pasa den asteartean Gipuzkoako Ganberan enpresariari zuzendutako jardunaldietan hartu zuen parte Hirukide ikastetxeak gonbidatu bezala. *Adimen Emozionala Lan Arriskuen Prebentziarako Erreminta* gaia jorratu zuten, eta Tolosako ikastetxeak euren esperientzia azaldu zuten gaiaren inguruan.

Bertan, Olga Rivera (Deustuko Unibertsitatean Enpresako Politika eta Antolaketa katedraduna), Jose Antonio Gonzalez (Sycam Training.eko zuzendaria), Iñigo Zarragañones (Prebentzio-eko ergonomia eta psikosoziala arduraduna) eta Jose Ramon Guridi (Gipuzkoako Foru Aldundiko di-



Txaro Etxeberria. HITZA

putatua) izan ziren hizlari bezala. Esperientziei dagokienez, hiru arlo desberdinetako enpresa edo erakundeak izan ziren.

Hirukideren kasuan, bertako orientatzailea den Txaro Etxeberriari azaldu zuen zergatik erabaki zuten adimen emozionala lantzea ikastetxeko irakasle, ikasle eta familiarekin, zein izan den orain arte egindako ibilbidea eta zer nolako eragina izaten ari den ikastetxeko bizitzan. Berakesan bezala, «Hirukide proiektua abian jarri zenetik

Bizikidetzat Positiboa sustatzea izan zen helburu nagusietako bat, eta hori lortzeko ezinbestekoa zen emozioen eta sentimentuen heziketa lantzea». Etxeberriari adierazi zuten eurentzat ere harrigarria izan zela «zer nolako gogo eta ilusioa piztu zuen proiektu honek irakasle, ikasle eta gurasoengan». Hala, norbere kompetentzi emozionalak garatzeak onurak ekarri dizkiela bizitzako arlo guztietan esan zuten, eta horren guztiaren «eragin positiboa garbi ikusten dela ikastetxeko lan giroan, elkarlanean aritzeko joeran, guraso, ikasle, zein langileen arteko harremanetan...».

Hirukideren kasuan bezala, adineko pertsonak artatzen dituen Gerozerlan erakundearen eta Elgoibarko Alcorta Brochaus izeneko forja lantegiaren adimen emozionalaren inguruko euren esperientzien berri emateko unea izan zuten. Amaizteko, Diputazioa arlo honetan egiten ari den lana eskertu zuten guztiei.

2002ko urtarrilaren 30ean hil zen Kaxiano, Lizartzako itsua, akordeoiarekin eta bertsoekin hainbat eta hainbat herriko plaza 40 urtez alaitu zituen: Antzuolako lizartzarra, edo Lizartzako antzuolarra.

# Hausporik herrikoiena

## ERREDAKZIOA

Lizartzako itsua esatearekin berehala euskal herritar orori Kaxiano datorkigu burura. Kaxiano Iburguren zen izen-abizenek eta hainbat plaza alaitzen aritu zen akordeoi-jotzailea izan zen. Duela 7 urte gaurko egunarekin hil zen Antzuolako lizartzarra. Plazaz plaza akordeoia astinduz eman zuen ia bizi osoa, 17 urtetatik.

Euskal soinu-jolea Antzuolan jaio zen 1932an eta 2002ko urtarrilaren 30ean hil, minbiziak jota. Haurra zela familia Lizartzara bizitzera joan zen. «Lizartza maite dut bihotzez, hauxe izan da nire herria urte askoan eta. Baina antzuolarrak haserretu egiten zaizkit hangoa naizela esaten ez badut», esan ohi zuen Kaxianok. Hamar urte besterik zituela umezurtz-gelditu eta Donostiako Miramon auzoko baserri batera eraman zuten morroi.

Gaztetan, 17 urterekin hain zuzen ere, geratu zen itsu Lizartzako tunela egiten ari zirela. Bertan ez-tanda bat izan zen eta hura izan zen ondorioetako bat. Hala ere, Joxepa Atxegi, bere alargunaren esanetan, honek ez zuen eraginik izan bere bizitzan. «Erraz gainditu zituena gertaera honek eragindako oztopo guztiak, batez ere, bere nortasun sendoak zuzendua. Hala ere, pentsa dezakegu zorigaitz hori zorion ere bihurtu zitzaioela, bere bokazioa landu baitzuen». Gertaera hau izan zen akordeoia jotzen hasteko arrazoietako bat, ezbeharrak gertatu eta hilabete batean, alegia.

Bazen garai hartan Donostian apaiz bat eta harekin, braille sistema erabiliz egin zuen. Horrelaxe, Donostiara joaten zen eskolak hartzera. Gero, erromeria eta ezteietan jotzen hasi zen. Handik gutxira bere kantu propioak sortzen hasi zen eta arrakasta handia izan zuen askok. Euskal Herri osoan *Itsasontzi baten* eta *Zorionak* adibidez, oso ezagunak egin ziren duela 20 urte inguru.

## Zazpi disko 16 urtetan

1986an ateratu zuen bere lehen diskoa, *Itsasontzi baten* deituta. Honekin jende askorengana helzteko lortu zuen Lizartzakoak: baserri giroko jendearengana, dantza eta plaza taldeengana, euskara ikasleengana, txosnetara... Irratietan eskainitako kantuen tartean ere ia egunero jartzen zituzten kantu hauek.

Urte bat beranduago *Baserritik kalera* diskoa argitaratu zuen eta hartutako bidearekin jarraitu zuen: euskal sustraiari lotutako doinuak ziren, kanturako asmaturak edo dantzarako, letrak ere be-



2005ean Kaxianori omenaldia egin zioten Lizartzan eta bere garaiko bertsolariak aritu ziren. HITZA



Omenaldian txistuaren doinua ere entzun ahal izan zen. HITZA

rak egiten zituen, bertsolaria baitzen, baltsak, pasodobleak, boleroak eta abar «ederki» menderatzen zituen, eta bere sinpletasunean antzinako kutsu bat gordetzen zuen beti. Lizartzari eskainitako bilduma-disko bat ere egin zuen Kaxianok: *Lizartzako oihartzunak*, hain zuzen. Bertan, *Nere bizitza* izeneko kantu bat aurki dezake entzuleak eta bere biloba batekin kantatzen du eta galderen bidez Kaxianok bere bizitza kontatzen du.

Berrogei urte inguru eman zituen herri herri erromeriak eskaintzen, eta bazter guztietan ezagutzen eta maite zuten.

## Bertsolari lanetan ere trebea

Kaxiano akordeoiarekin lotzea da identifikatzea da ohikoena, baina bertsoetan ere aritzen zen itsua, eta lehenengo aldiz Arronan kantatu zuen. Aipatzekoa da gainera, 1960, 1962 eta 1964an egin ziren eskualdeko txapelketetan parte hartu zuela.

Tolosakoan, gainera, bitan irabazi zuen eta gero Eibarren final-laurrekoan geratu zen. Hurrengoan, Eibarren ere, finaleraino iritsi zen, baina ez zuen garaipenik lortu. Lazkao-Txiki izan baitzen irabazlea.

Fermin Muñoa berrobitarrare-

## » LETRA BATZUK

### 'Itsasontzi baten'

Itsasontzi baten  
Euskal Herritik kanpora  
naramate eta ez dakit nora.  
Agur nere ama laztan goxoari  
ez egin negar, etorriko naiz  
egunen baten pozez kantari  
Itsasontzi baten...  
Agur senideak agur lagunari  
agur Euskal Herri osoari.  
Ez egin negar etorriko naiz  
egunen baten pozez kantari  
Gora Euskal Herri  
Gora Euskal Herri  
Gora Euskal Herriari.

### 'Pernando Amezketarrarena'


Egia ospetsua zen  
Pernando Amezketakoa  
Aintzinako Pernando  
Amezketakoa  
makina bat komeri bizitutakoa  
buruz azkarra zen da  
dena berezkoa  
ez zen baitek bezala  
ikasitakoa.  
Baina betikoa  
apaizan lepoa  
azal gurikoa neurri lodikoa  
eta Pernandon etxean  
falta jatekoa.  
Egia ospetsua zen  
Pernando Amezketakoa,  
Pernando egun baten  
eguardi aurrean  
apaizaren etxera  
joan zen zuzenean.  
Aitzeki ta maitzeki  
bazkaldu nahiean  
barrura sartzean  
semea atzean  
utzi zuen atean.  
sartzeko deitzean  
bazkaldu nahi baitzuten  
apaizan etxean.  
Egia ospetsua zen  
Pernando Amezketakoa,  
Konbidatu zuen da  
bazkaldu baino lehen  
mahaia bedeinkatzeko  
egin zuen aitaren  
semea esan gabe.  
Espirituaren apaizak  
esan zion  
semea non zuen  
tranpan erori zen:  
atean zain zeuken  
noiz deitzen zioten  
hasteko bazkalten.  
Aita-semeak bapoa  
han bazkaldu zuten.

## » HAINBAT DATU

- 1932. Antzuolan jaio zen.
- 1949. Itsu geratu zuen.
- 1960-62-64. Eskualdeko bertso txapelketetan parte hartu zuen.
- 1986. Bere lehen diskoa argitaratu zuen: *Itsasontzi baten*.
- 1987. Bigarren lana kaleratu zuten: *Baserritik kalera*.
- 1991. Ongietorri diskoa egin zuen.
- 1996. *Soinu eta kantu* lana argitaratu zuen.
- 2000. *Lizartzako oihartzunak* bilduma argitaratu zuen.
- 2000. Bere azken lana, *Antzuolari* burutu zuen.
- 2002. Minbiziak jota hil zen, gaurko egunarekin.

kin aritu zen, lehiaketa horietako batean.

Gizon ona zela diote ezagutu zutenek, eta bere musikak ere badu patxada hori, lasaitasun hori, zoriontasuna transmititzen zuen sortzaile baten magia. Horren adibide argia Lizartzan eskaini izan dioten omenaldia da izan daiteke.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# 'Sua'-ren «bigarren estreinaldia» izango da gaur Belabietan

**Ibarra** » 'Sua' ikuskizuneko Ibarra emanaldirako espresioa, dantzen arteko loturak eta argitazpena landu dituzte.

REBEKA CALVO

Gaur eskainiko dute Alurr Dantza Taldekoek *Sua* ikuskizuna Ibarra kiroldegian, Uzturpe ikastolak antolatutako Kultur Astearen barruan. «Bigarren estreinaldi» modukoa izango dela diote, izan ere azaroaren 16an Leidor antzokian eskainitako estreinaldiaren ondok «gauza berriak» sartu dituztela argitu dute.

Oraingoan ere Leidorren aurkitu genituen Ibarra emanaldia prestatzen. Oraindik fokuak piztu gabe zeuden, egun bat zuten aurretik dena ondo lotzeko, baina urduritasuna somatzen zitzaizkien dantzariak.

«Ibarra dantzatzeak ilusio be- rezia egiten du Ibarra taldea ga- ren aldetik, egia da ere Leidorren azaroan izan genuen estreinaldia eta gero ere lasaitua hartu genuela.

Baina ni behintzat urduri xamar nago berriz ere», esan zuen dan- tzarietako batek.

## Emanaldia «fintzen»

Leidorreko estreinaldiko bideoa ikusita hutsuneak betetzeko aukerari heltzea erabaki zuten eta az- ken egunetan emanaldia «fin- tzen» aritu dira.

«Bigarren estreinaldia izango da. Bideoa ikusi genuen eta hutsune batzuk zeudela konturatu ginen eta horiek bete ditugu Ibararako. Interpretazioa sartu dugu dantza batetik besterako lotura hori nahiko airean gelditzen zela ikusi genuen eta. Istorio bat kontatzen dugu dantzaren bidez eta inter- pretazioa nahiko libre geratzen zela konturatu ginen, horregatik egin ditugu aldaketak», argitu zuen beste dantzari batek.

Aipatu «interpretazio» hori Sua pertsonaia gorpuzten duen dan- tzariari egokitu zaio. «Taldea ban- ditugu idazten ondo aritzen dire- nak eta haiek idatzitako esaldiak botako ditu dantzen loturak egite- ko», argitu zuen Iñaki Ulazia dan- tza taldeko kideak.



Alurreko kideetako batzuk Leidor antzokian Suaren Ibarra emanaldia prestatzen. R. CALVO

Espresioa ere landu dute orain- goan: «Taula gaineko jarrera ere findu dugu. Espresioa landu dugu, jauntxoan eta herri xehearen arte- ko alde hori ere espresioaren bi- dez adierazi behar genuela ikusi genuen eta eta ez bakarrik jan- tzien eta dantzen bidez. Zaila izan da, ez baikaude ohituta, baina nik uste lortuko dugula», esan zuen Ulazia.

«Bigarren estreinaldiaren» az- ken aldaketa argitazpenarena izango da, izan ere, *Sua* guzti- guztia landu dute Alurr Dantza Taldeko kideek, baita argitazpena ere; «beste ikuskizun guztietan guk dantza egiten genuen eta argi- tazpena ez genuen aukeratzeko, oraingoan bai, eta Leidorrekoa eta gero erabat aldatzea erabaki dugu».

## «Segurtasun gehiago»

Gaurkotsaioan urduri egongo dire- la esan zuten dantzari gehienek, nahiz eta lehen emanaldia eta gero «segurtasun gehiagorekin» dan- tzatuko duenik ere egongo den.

Okerrena pasa dela esan zuten: «Emanaldia prestatzen aritu ga- reneko zazpi hilabeteak ere gogo- rrak izan dira. Argi genuen gurea izango zen zerbait sortu nahi ge- nuela, istorio propio bat, baina lan asko egin behar izan dugu». Dato-

zen hilabeteetan, hortaz, *Sua*rekin emanaldiak eskaintzeko garaia helduko zaie: «Gogoa daukagu. Zaila izaten da ikasketak, lana eta kontu desberdinak ditugula entse- gatzea edo emanaldietara joatea, baina gustura egiten dugu».

Alurrek indar handia du une ho- netan, urteak daramatza lanean eta azkenaldi luzean fruitu horiek jasotzeko garaia iritsi zaie. Hori bai, badute hutsunerik ere: muti- lak. «Oraindik ere dantza nesken kontua dela dago zabaldua eta ez da horrela. Neska gehiago gara mutilak baino eta pena da». Ea *Sua* eta beste ikuskizunei esker muti- lak ere animatzen diren dantzara.

# «Herri honetan ez dira eskubideak bermatzen»

## Leaburu-Txarama

Herriko ezker abertzaleak Udaleko jarrera salatu du; «nazkatuta eta haserre» daudela esan dute.

REBEKA CALVO

Leaburu-Txaramako ezker aber- tzaleak Udalean jasatzen duten «bazterketa» salatu du. «Herri ho- netan ez dira eskubideak bermat- zen; ezker abertzaleak ditu boto gehien eta begira zer egiten ari di- ren», esan zuten asteazken ilun- tzean, plenoaren ondok eginda- kop prentsurrekoan.

Horiek horrela, ezker abertzale- ko kideak «haserre» agertu ziren komunikabideen aurrean: «Guk benetan salatu nahi duguna hauxe da; hasteko Osoko Bilkuretako ak- tetan ukatu egiten dutela idazka- riaren hitza, idazkariak egin be- harko luke akta, baina Jose Martin Deusto zinegotziak esaten dio zer egin, berak pasatzen dio akta idaz- kariari. Non ikusi da hori?».

Kontua atzetik dator, «nahiz eta azken Udal Hauteskundeetan



Ezker abertzaleak Udalaren jarrera salatzen agerria egin zuten. R. CALVO

egin zuten okerrera»; aipatu Jose Martin Deusto zinegotziak Bide Berriak plataforma bultzatu zuen eta EAE-ANV alderdia, bere alde- tik, «legez kanpo» utzi zuten. He- rrian 325 lagun zeuden errolatuta eta bozkek 253 izan ziren, EAE- ANVk 132 boto jaso zituen, Bide Berriak 118, PPK ez zuen bakar bat ere lortu eta hiruzuri ere izan ziren. Ondorioz, botoei errepara- tuta, EAE-ANV lau zinegotzi es-

kuratu zituen eta Bide Berriak berriz 3, 7 ezker abertzalearen in- dargabetzearen ondorioz. Horiek horrela, «Bide Berriako hiru zi- negotziek hartu zuten kargua eta beste lauk kredentzialak jaso baina ez zuten zinegotzi kargurik har- tu». Jose Martin Deustok uko egin zion alkate izateari eta bi alderdien arteko elkartzetara eta gora behe- ra askoren ondok «azkenean ges- tora bat osatzeko akordioa hartu

genuen, zinegotziak, ordea, ukatu egin zuten hori gerora Gipuzkoako Foru Aldundian izandako bilera batean», argitu zuen ezker abertzaleak. Une honetan platafor- ma Mari Cruz Agirre da alkatea.

«Orain arte ez dugu ezer esan publikoki, baina ia nazkatuta gaude, Osoko Bilkuretan eskaera eta galderen garaia iristen da eta ez di- gute ezer esaten uzten; asteazke- nen, adibidez, beste Osoko Bilkura bat egon zen eta bertan, puntu ba- rrekarra zegoen eztabaidatzeko, ez ziguten hitz egiten utzi, eta hurrengo egunean, gainera, Mar- kel Olano etorri zen herrira eta guri ez zigun inorrek ezer esan», salatu zuen ezker abertzaleak.

Foru Aldundiko Markel Olano, Rafa Urribarren eta Maite Peniaco- baren bisitarengan inguruan hauxe esan zue ezker abertzaleak: «Gu beti egon gara Diputazioarekin ha- rremana izatearen alde. Hori ez da kontua, atzean badaude kontu gehiago, interesak... eta hori da sa- latzen duguna. Beraiek nahi duten guztia egiten dute eta ezker aber- tzalearekin harremana nahi dute- la diote, baina gero ez da horrela»,

gaineratu zuten. Hauek ikusita «gure salaketa da Udalean ezin di- rela erabakiak hartu gurekin hitz egin gabe, gurekin batera erabaki behar dira herriari eragiten dieten kontuak, eta ez dute egiten. Guk hasieratik erakutsi genuen hitz egiteko nahia, bilera ugari egin ge- nituen Udal Hauteskundearen on- dotik, baina ez digute kasurik egi- ten. Herriaren gainetik, idazkariar- en gainetik eta gure gainetik pasatzen dira», argitu zuten. «De- mokratiko bezala aurkezten dute- la euren burua eta ez da horrela», azpimarratu zuten.

## «Informazioa ukatu»

Era berean, «informazioa ukat- zen» dietela ere esan zuten; «2007ko aurrekontuak eskatzen ari gara oraindik, baita 2008koak ere, eta ez digute informaziorik ematen, oso grabea da». Beste kri- tikarik ere izan zuten ezker aber- tzaleko kideek, izan ere, Osoko Bilkuretako aretoan zegoen Ando- ni Otegi presoren argazkia «kendu dute eta erori egun dela diote, gainera. Aretoan zegoen ikurrina ere kendu egin dute».

# Barriolak eta Bengoetxeak VI.ak bihar eta etzi jokatuko dituzte euren lehiak

**Leitza** » Aurrerako pilotariak gaur eta bihar jokatuko dituzte Nafar Jokoetako eta Euskal Herriko Ligako partidak.



Nafar Jokoen barnean zazpi partida jokatuko dira bihar Amazabal pilotalekuan 10:00etatik aurrera. NAIARA GARZIA

## ASIERIMAZ

Asteburuari begira jarrita pilotalekuak leitzarrez beteko dira beste behin ere.

Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak Binakako Txapelketan jardunaldi berri bat jokatuko dute eta, Aurrera Pilota Eskolako gazteak Euskal Herriko Ligan eta Nafar Jokoetan ariko dira.

**Binakako Txapelketa Nagusia**  
Barriolak eta Bengoetxe VI.ak hilaeren amaieran eta hasieran jokatuko dituzte euren partidak.

Leitzako atzelariak Idiazabalaren jokatuko du Berasaluze VIII-Beginoren aurka. Bikotekide bezala

Gonzalez edo Olazabal edukiko du Barriolak. Lapurtarra sendatzen ez baldin bada, aresoarrak jokatuko du bihar Binakako Txapelketaren jardunaldi berri honetan.

Oinatz Bengoetxea eta Ruben Belokik Eibarren jokatuko dute

otsailaren lein, etzi. Leitzarrek eta burlatarrak Xala eta Zubieta edukiko dituzte aurrean. Txapelketan Xalaren bikotea Laskurain baldin bada ere, lesioa medio, Zubieta irtingo da kantxara Laskurainen lekuan.

## Pilotari gazteei begira

Leitzako pilotari gazteak Euskal Herriko Ligan eta Nafar Jokoetan lehiatuko dira gaur eta bihar. Amazabal pilotalekuan ere partida bat baino gehiago ikusteko aukera egon da asteburuan.

Euskal Herriko Ligan, Paleta Goman, etxean jokatuko dute Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak; partida 20:00etan hasiko da.

Nafar Jokoetako esku pilota partidak aldiz bihar jokatuko dituzte. Leitzarrek Nafarroako hainbat herritan ariko dira, baita Amazabal pilotalekuan ere. Hemen, bihar zazpi partida aurreikusten dituzte 10:00etatik aurrera. Bertan egongo dira Barriola-Zubiria; Sagastibelza-Garziarena; Igarua-Gil; Olano-Barberena; Eraso-Onsalo eta Apezetxea-Hernandorena.

Huarten Beñat Altzelaik eta Jonanes Illarregik jokatuko dute 09:30ean. Burlatan bi bikote leitzar egongo dira 09:30etik aurrera: Iñigo Mitxaus-Iñaki Saralegi eta Jon Sukuntza-Beniat Billabona. Iruñean Julien Goikoetxeak eta Lenitz Galartzak jokatuko dute 10:00etan hasiko den jardunaldiko 5. partida. Zizur Nagusian, 10:00etatik aurrera, Ander Alduntzin-Joseba Eskudero eta Aimar Gil-Mikel Eraso irtingo dira kantxara. Zubirín azkenik, Jon Lezeak eta Ander Eskudero jokatuko dute 16:00etan hasiko den pilota jaialdia 4. lehia.



## Bertso eskolaren lehen errimak

**LEITZA** » Aurrera Elkartean jarri zuten martxan Bertso Eskola atzokoan. Ostegunero, 19:15ean, bertan elkartuko dira eta atek zabalik omen dituzte, hau da, nahi duena ager daiteke Bertso Eskola berritura. Atzokoan,

15 lagun elkartu ziren, afizioa landu eta garatzeko asmoz. Futbol taldeen modura, denboraldi berriko aurkezpen argazkia atera, eta Joxema Leitza irakaslearen aginduetara jarri ziren ondoren. ASIERIMAZ

## Hiru asteburutan hiru film estreinatuko dituzte zinean

**Leitza** » Gaur eta etzi Ed Harris zuzendariaren 'Apoloosa' filma ikusteko aukera egongo da 22:30ean eta 19:30ean.

### A. IMAZ

Leitzako zine denboraldia aurrera doa eta jadanaiak proiektzio berriak prest dituzte Zinean. Bertan, hurrengo hiru asteburuetan, estreinaldiak eskainiko dituzte.

### Gaur eta etzi: 'Apoloosa'

Ed Harris aktorearen, kasu honean zuzendariaren, film berria eskainiko dute gaur 22:30ean: *Apoloosa* hain zuzen ere. Gaur ikusterik ez duenak etziedukiko du horretarako aukera, bigarren aldiz otsaila-

ren lein botako baitute filma Zinean. Kasu honetan 19:30ean.

### Otsailaren 6ean eta 8an

Urteko bigarren hilabetearen lehen asteburu osoan, otsailaren 6ean eta 8an, *Las horas del verano* filma egongo da ikusgai Zinean. Olivier Assayas zuzendariaren frantziarraren azken lana ohiko orduetan egongo da ikusgai, hau da, ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

### Garrone eta 'Gomorra'

Otsailaren 13an eta 15ean, Mateo Garronerren *Gomorra* filma estreinatuko da Leitza. Emanaldiak ohiko orduetan izanen dira eta zuzendariaren zein filmaren izenak pentsarazten duen bezala, Italiako mafia izanen da filmaren ardatza.

## Laburrak

### Inauteriak gaurtik etzira ospatuko dituzte

**ARESO** » Eskolako haur eta gurasoek emango diote hasiera 2009ko Inauterietan gaur 15:00etan kalejira batekin. Ondoren Txokolatada egingo dute eta gauean Lagun Artea afaria egingo du Pake-Toki Elkartean.

### Jaitsiera kanporaketa bihar jokatuko du Olanok

**LEITZA** » Nafarroako 2. Mailako Aizkolari Txapelketako Jaitsiera kanporaketa bihar jokatuko du Arkaitz Olanok, Iturenen 13:00etan. Azken postuan gelditzen diren bi aizkolariak maila galduko dute.



12°  
5°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	8°
HOTZENA	5°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Areso.** Inauteriak. Gaurko egitaraua: 15:00etan, Eskolako haurrak eta gurasoak kalejiran aterako dira herrian barrena eta ondoren txokolatada izango dute eta gauean Lagun Arteak afaria Pake-toki elkartearen. Biharko egitaraua: Goizean Eskea baserrietan Koldok lagunduta; 17:00etan Mozorroak; 18:00etan dantzaldia Koldorekin plazan eta Guraso Elkarteak arratsaldekoa eskainiko dute bertan; 21:00etan herri afaria Elkartearen Lagun Arteak antolatuta.  
■ **Tolosa.** Bihar, San Blas auzoko jaiak: 12:00etan ume jolasak; 16:00etan Toka lehiaketa probintziakoentzat eta 18:30etik 21:30era Disko festa.

### Deialdiak

■ **Aduna** Asvinenea Kultur Elkarteak III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa antolatu du profesional zein amateurrentzat. Informazioa eta izen-ematea, [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean.  
■ **Asteasu.** Otsailaren 7 eta 8rako eski irteera antolatu du Sagain mendi taldeak Luz Ardiden-era. Informazioa, [www.sagain.org](http://www.sagain.org) helbidean.  
■ **Berastegi.** Aurtengo lehen odol ateratzek egingo dira, Muñagorri eskolako aretoan 18:30etan hasita.  
■ **Ibarra.** Bihar, haur Festa 0-12 urte arteko umeentzat Belabieta kiroldegian 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara. Ondoren txokolatada izango da plazan.  
■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.  
■ **Tolosa.** Bihar, Palestinaren alde-



Aizkolegi mendiaren ikuspegia. HITZA

# Bertizko Jaurrerian barna

**Villabona** » Aizkardi mendi elkarteak Sunbila-Lekaroz irteera antolatu du hilaren 8rako, iganderako; izen-ematea zabalik dago.

### ERREDAKZIOA

Gogor ekin dio urteari Aizkardi mendi elkarteak. Asteburu hone-tan berriz ere irteera egingo dute, Sunbilatik Lekarozera, hain zuzen ere. Heldu den iganderako, hilak 8rako, antolatu dute eta elkartetik jakitera eman dutenez, izena emateko aukera dagoeneko. Inte-

resa dutenek 943 694458 telefono zenbakira dei dezakete eta Bearengatik galdetu. Beste bide bat elkartera bertara jotzea izango da. Heldu den osteguna izango da izena emateko azken eguna.

### Irteeraren nondik norakoak

Sunbila izango dute abiapuntu mendizaleek. 90 metrora dago herria eta Suspiro muinoraino igoko dira lehenik (412 metro). Bertan Bertizko Jaurreriko mugak ezagutuko dituzte eta hauen inguruan ariko dira, gainera, ibilbide guztian zehar.

Halaber, Iñarmeaka (637 me-

tro), Añolatz (645 metro) gailurrak zeharkatuko dituzte eta Bertizko Jaurrerian barneratuko dira. Handik Aizkolegi mendia igoko dute (841 metro). Eta gailurretik gailurrera. Izan ere, handi Legate gailurrera igaroko dira (870 metro). Bertatik Lekaroz (240 metro) herri-rrira jaitsiko dira. Honenbestez amaituko dute ibilbide hau.

Arduradunek adierazi dutenez sei ordu inguru beharko dituzte ibilbide osoa burutzeko, 22 kilometro inguru direlarik egin beharretakoak.

Izena ematen dutenentzat autobusa antolatuko dute ohi bezala. Irteera, berriz, 07:30ean izango da, Olaederra kiroldearen kanpaldetik.

ko manifa Triangulotik 12:30ean abiatuta.

■ **Tolosa.** Bihar, Tolosa Kantari 12:00etan Tontokaletik. Euskaraz kantatzea atsegin duen guztiei irekia.

■ **Tolosa.** Bihar, Euskal Kantu Liriko Berriak Santa Klara elizan 20:00etan.

### Ikuskizunak

■ **Ibarra.** Alurr Dantza Taldeak *Sua* ikuskizun berria aurkeztuko du, 22:00etan, Belabieta kiroldegian, Uzturperen Kultur Astearen baitan.

### Zinema

■ **Tolosa.** *La ola* filma emango dute Leidor aretoan 22:30ean. Bihar, *Una amistad inolvidable* filma 17:00etan. *El intercambio* filma emango dute 19:30ean; etzi 19:30ean eta 22:00etan eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

### Erakusketak

■ **Amasa.** Egoitz Bengoetxeak eta Gorka Lopezek Alpeetan ateratako argazkien erakusketak Amasako kultur etxean, *Alpeetako argiekin jolastuz* izenburupean.

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei buruzko margolanak ikusgai asteartetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan. Bizi-biziki eta denetan begia da jorratzen duen gaia.

■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren buztin egosi artelanak ikusgai Lanbroa tabernan.

■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarraren margolan erakusketak Aranburu Jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunikuzinik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**June eta Beñat Intza Jauregi.**

Gaur 8 urte bete dituzte. Muxu handi bat izeba Maritxuren partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**OKINDEGI / KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK NEGOZIO BERRITZAILE ETA KONTRASTATUAREKIN, ERRENTAGARRITASUN HANDIAREKIN LEITZAN LAISTER EGINGO DUEN IREKIERARAKO HARREMANETAN JARRI NAHI DU:**

- BEREZKO NEGOZIOA
- KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN
- DENDAKO ARDURADUNEKIN
- SALTZAILEEKIN

Interesatuek harremanetarako gutuna eta CVa bidali ondoko helbidera: posta kutxa 54 - 20115. Astigarraga